

ARMAIRUA BERRITU NAHI DUT

1B Urterokoa gertatu zaizu. Negua iritsi eta berokiak, jertse lodiak eta aspaldian jantzi ez dituzun galtza goxo horien bila joan zara. Baina, armairua zabaldu orduko konturatu zara aspergarria eta xarmarik gabeko jantziz betetako armairua duzula. Honenbestez, zer jantzi ez dakizula zaude.

Sekuentzia honetan zure armairua berritzeko ideiak eskaini nahi dizkizugu. Bertan irakurri eta entzungo dituzunak kontuan hartuta, zer erosi erabakitzeko astia hartuko duzu eta dendaz denda joateko oso zerrenda erabilgarria osatuko duzu. Ondoren, zure armairua nola geratu den deskribatuko diguzu:

[Sekuentzia Didaktikoa]

Belen Benitez



Helburua gauzatzeko hauek izango dira egingo dituzun lanak:

- Hainbat famaturen armairuetan zer dagoen eta zer ez dagoen aztertuko duzu eta zeurearekin erkatuko.
- Aurreko eta aurtengo moda alderatuko dituzu, jantzien ezaugarriak sailkatuz: luze-zabal, formal/informal/klasi-koa, artilezko, kolorezko...
- Arroparen inguruko lexikoa baliatuko duzu: gona, galtza, jaka... zerrenda bat osatzeko.
- Armairua berritzeko erabakiak hartuko dituzu eskainitako moldeez baliatuz.
- *Badago/ ez dago / ez dut / badut / ez... ezta ere / baita... ere* egiturak landuko dituzu.

1 ARMAIRUTIK SOINERA

Zure armairuari erreparatu aurretik, hainbat famatuen armairuan barrena ibiliko gara, ea zer topatzen dugun!

A. FAMATUEN ARMAIRUA

Maiz ikusten ditugu komunikabideetan eta oso ondo jantzita gehienetan. Baina, zer izaten dute armairuan pertsonaia famatuek? Irakurri deskribapenak eta aukeratu nork esan duen zer.

Mick Jagger




1

Victoria Beckham



2

Agatha Ruiz de la Prada



3

Ronaldinho



4

DESKRIBAPENAK

A Armairuan denetik daukat: azken joerako arropa izaten dut, informala zein formala. Batez ere gonak eta soinekoak janzten ditut, eta ahal den guztietan, oso motzak. Kolore guztiak ditut gogoko, baina beltza eta dirdiratsuak dira gehien erabiltzen ditudanak eta aurtengo neguan artilezko jertse luzeak eta zabalak jantziko ditut. Umm... uste dut kotoizko praka zabalak eta txanodun izerditakoren bat falta dudala.

B Arropa erosoak erabiltzen dut beti. Armairuan beti ditut galtza zabalak, bakeroak, elastiko edo kamisetak eta izerditakoak. Tarteka alkandorak eta galtza estuak erosten ditut baina saiatzen naiz itxura informalekoak izan daitezen. Ez naiz oso hozkila edo hozbera eta horregatik ez daukat jertse lodirik armairuan. Hori bai, negurako beti izaten ditut artilezko txanoak eta aurtengo bufanda pare bat edo erosiko ditut.

C Bizitza koloretsua da eta nire armairuan dauzkadan arropa guztiak halakoa dira: kolore bizikoak. Beltza, grisak eta zuriak hain aspergarriak dira! Soineko beltz klasiko bat ez dut sekula izango armairuan, nire izaerarekin ez baitator bat. Neguko hotzari aurre egiteko kanpai itxurako beroki fuksia zoragarri bat daukat, koloretako bihotz, hodei eta lorez apaindua... A ze inbidia pasako duten nire ingurukoek!

D Nire armairuan beti izaten dut kolore beltzeko arropa. Oso erraz janzten dudana kolorea da eta asko gustatzen zait. Galtza bakero asko ditut baina, oso alkandora gutxi, estilo formala ez dudalako batere gustuko. Nire armairuan ez duzu sekula gorbata bat aurkituko. Zaila izango da ni gorbata bat jantzita ikustea. Aurtengo negurako aspaldian erosi nuen larruzko jaka bat atera dut armairutik, modan daude berriro eta nireak kolore perfektua du: beltza!

Jaso ezazu taulan armairu bakoitzean aurkituko duguna eta ez duguna eta baita negurako aukeratu dutena ere:

	Micken armairuan	Victoriaren armairuan	Agatharen armairuan	Ronaldinhoren armairuan
Badago:
Ez dago:
Negurako:

B. KIKEREN ARMAIRUA


Kike Amonarriz-ekin jardun dugu hizketan ale honetan (ikus ELKARRIZKETA saila). Tarte hori telebistarako janzten duen arropa aztertzeko aprobetxatu dugu. Bere armairuan hauxe aurkitu dugu:

- Galtza bakeroak
- Alkandora marraduna, kolore bakarrekoa
- Jaka iluna

Beste hauek, berriz, ez ditugu aurkitu:

- Elastiko marradunak
- Trajea
- Gorbata
- Artilezko jertsea
- Txalekoa
- Militar itxurako galtzak, panazko galtzak

Datu hauekin, saia zaitex aurreko famatuek egindako deskribapenaren antzeko bat egiten:

KIKE AMONARRIZ 	Nire armairuan....
---	--

Zalantzarik sortu bazaizu, 22. orrialdera jo.

C. ZER DAGO ZURE ARMAIRUAN?

Ireki ezazu armairua eta aztertu barruan daukazuna.

Osa ezazu koadroa zure armairuan aurki daitekeenarekin:

Badago:
Ez dago:
Negurako:

2 AURTENGO MODA

Ukaezina da modak duen eragina gure janzkeran. Izan ere, gehiago edo gutxiago, garaiko joerek markatzen digute gure armairuan zein jantzi mota sartu. Hauxe duzu aurtengo modaz zerbait gehiago jakiteko aukera.

Emakumeen moda**Joerak**

Udazken-neguko joera, arropa estrukturatu eta leunetan igarriko dugu. 'A' formako mozketak nabarmenduko dira eta XXL neurrian puntua eta artilea presente daude. Goi mailako jostkintza estiloekin nahasita 'grunge' estiloko ukituak ikusiko ditugu. Jantzi batzuk larruekin apainduko dira, benetakoak edota imitaziokoak.

Koloreak

Koloreei dagokionez, grisa, beltz berriak eta urdin degradatuak nagusituko dira, udazkeneko kolore beroak ahaztu gabe.

Estilo, material eta estanpatuak uztartuz, udazken-negu honetako moda bete-betean.

Materialak

Artilezko franela: Klasiko hau betiko koloretan itzuliko da: antrazita, itsas urdina, txokolatea, berdea... Artile eta kaxmirrarekin batera, franela da gailen denboraldi honetan, eta gona, galtza, traje eta berokietan ikusiko dugu.

Artile sotila: Kaxmirraren ondotik 'must have' edo derrigorrezko izaten segitzen du. Orain finduta dator eta hagitz eroriak gelditzen dira.

Larrua: Bilduma guztietan ageri da larrua, benetako nahiz imitaziokoa, txaleko eta berokietan batez ere.

Distiratsuak: Zetazko satina, poliesterrezko satina, txarolak eta lakatuak denboraldi honetan indartsu datoz. Ukitu diskretuekin zure estilora egokitu ditzakezu (bufanda, blusa, bolero...) edo baita jantzi nagusian ere.

Gizonezkoen moda

Denboraldi berriko joera hori kolorea izanen da. Beltzarekin (negu honetako kolore nagusia) horiak hagitz ongi konbinatzen du eta beroki, zapi eta kamisetatan ikusiko da. Baita urre eta zilar kolorea ere. Norberaren esku egongo da aukera egitea. Oro har, sport estilo eroso eta dotoreak definituko du gizonezkoen moda. Trajea ere ikusiko da, baina informala. Kirol oinetakoekin, artilezko osagarriekin... Trajea alde batera utzita, sport estiloa nagusituko da txano, galtza zabal, kirol oinetako edo kolore biziko jertseeekin.

Denboraldi honetan horia, beltza eta grisa nahitaezkoak dira. Kolore horia, beltza eta grisaren osagarri erabili behar duzu. Beraz, galtza edo txaketa horia aukeratu eta beltzarekin konbinatu. Zilar eta urre koloreak erabiliz ere arriska zaitezke.

Jantzi barrubigunak, larruzko apaingarriak dituzten txaketak, erabili beharko dituzu. Osagarrietan, kontuan hartu zorro handiak, fularrak eta militarren estiloko bota edo zapata belarridunak.

TTIPI-TTAPA - 455.zk - 2007/10/04 (moldatua)

D. AUKERA EGOKIA EGITEKO

Zerrenda honetan hainbat arropa ekarri dugu: aukeratu zein dagoen modan eta zein ez:

Abarkak	Gerriko estuak	Pamelak
Artilezko jertse, txaketa eta txalekoak	Gonazpikoak	Petoak
Belaunerainoko gona bakeroa	Jaka zabalak	Pitxiak
Franelazko gona	Jantzi barrubigunak	Pololoak
Galtza altuak	Katiuska kolore bakarrekoak	Poltsa handiak
Galtza zabal-akanpanatuak	Larruzko berokiak	Popelinazko atorrak
Galtza-gonak	Militar itxurako galtzak	Soineko luzeak

E. DESBERDINTASUNAK

Entzun² ezazu 2003ko neguko modaren azalpen osoa www.ikasbil.net web gunean, edo irakurri transkribatu dugun laburpena, eta aldera ezazu aurtengo neguko joerarekin (aurreko testuan jaso duzun informazioarekin). Zerrendan dituzu ezaugarri guztiak nahasian.

Emakumeak	Ezaugarriak
Koloreak	beltza / marroia / gorria / zuria / grisa / urdin degradatuak
Itxura	60-70 hamarkada / a formako mozketak / XXL neurriak / 90 hamarkadako grunge estiloa
Prakak	estuak / pitilloak / mallak (elastikoak)/ piratak / bakeroak / trajekoak gerri altu eta markatuak / behetik zabalak
Gonak	miniak / motz-motzak / belaurainokoak
Jertseak eta jakak	artilea / trikota / lodiak / lepo luze eta handiak / kapa-txaketak
Materialak	larrua / txarola / krokodilo tankerakoak / franela / artilea distiratsuak

² **Neguko moda.** Ikasbil 3854 (Euskadi Irratia)

Gizonak	Ezaugarriak
	jakak / zapatilak / hori koloreko jantziak / sport estiloa / galtza zabalak / militar estiloko botak / zapata belarridunak

Entzungaiaren transkripzioa

- *Bueno, laburtuko al dugu aurtengo moda nola datorren, Jone?*
- *Ea asmatzen dugun, bada, Leirek kontatu diguna ondo biltzen.*

Koloretan beltza nagusituko da, marroia ere bai ilunetan. Eta gero, kolore biziagoak: gorria eta zuria konbinazio koloretsuekin. Hirurogei eta hirurogeita hamar hamarkadako itxura hura hartuz.

Prakak, pitilloak eta mallak, batez ere, estuak. Pirata tankerakoak, dena den, ez dira desagertuko.

Eta **gonak**, berriz, miniak, gona motz-motzak. Konbinatzeko botinak, bota luzeak, eta baita ere, kalentadoreak.

Soinerako, berriz, lana, trikota eta lodi-lodia gainera. Lepo luze eta handiak, jertse eta jaketan.

Eta **mutiletan**, amerikar, e? Horiek bakeroekin eta zapatilekin janzteko modukoak.

Larrua. Larrua ere bai, sintetikoa. Mota guztietakoa, eta berrikuntza bezala, krokodilo tankerakoak ere aipatu ditu.

Eta koadroak, txarola, eta konbinazio ausart-ausartak.

Sailka itzazu taulan bi garaietan atal bakoitzari dagokiona kokatuz.

Emakumeak	2003ko neguan modan zegoena	2007ko neguan, zer?
Koloreak
Itxura
Prakak
Gonak
Jertseak eta jakak
Materialak

Gizonezkoak	2003ko neguan modan zegoena	2007ko neguan, zer?

F. ZURE TXANDA

Osa ezazu zerrenda bat aurtengo modaren arabera daukazuna eta ez daukazuna kontuan hartuta. Ikusi ereduak eta osa ezazu zure zerrenda:



Abel Barriola

Ez dut ez kolore metalizatuko jantzirik, ezta setazkorik ere.



Klaudio Landa

Arropa hori asko daukat, baita zuria ere.



Amaia Montero

Setazko arropa badut. Popelinazkoa ez, ordea.




Ainhoa Arteta

Arropa beltza badut, klasikoa eta informala.

Ez dut

.....



Eta zuk...

Badut

.....

3 ZURE ARMAIRUA

Iritsi da armairua berritzeko garaia. Zer erosi edo erretiratuko duzun erabakitzeko, ordea, ondo pentsatu beharko duzu aurrez...

G. ZERRENDA EGIN

Zerbait erosiko duzu? Ezer botako al duzu? Zergatik? Zerrenda egin eta Gabonetako merkealdia aprobeztatu armairua berritzeko:

Zerrenda:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



H. ERABAKIAK HARTU

Erabili honako egiturak zure erabakiak idazteko:

Erretiratzea erabaki duzuna adierazterakoan:	Zergatik?
...Hau/Hauak bota/oparitu/birziklatu behar dut Kenduko dut Botako dut	Ez dut janzten Txiki geratu zait Juxtu / Estu / Zabal daukat Aspaldikoa da Zaharra da Zaharkituta dago Zahar itxura du

Erosi behar duzuna adierazterakoan:	Zergatik?
...Hau/hauek erosi behar dut/ditut Erosiko dut	Gustuko dut Behar dut Ondo gelditzen zait/zaizkit

Erabakiak:

.....

I. ZURE DESKRIPZIOA

Deskriba ezazu nolakoa den zure armairua erosketak egin ondoren, A atazan famatuek egin duten antzera:

Nire armairuan, orain

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Oharra: Zure armairua osatzeko, HABE aldizkariaren elastikoa oparituko dizugu. Nola esku-ratuko duzun jakin nahi al duzu? Oso erraza da: sekuentziaren bukaeran idatzi duzun deskribapena bidal iezaguzu. Esan gabe doa lan txukunen truke bidaliko dugula oparia. Helbideak, hauexek: argitalpenak@habe.org edota HABE aldizkaria, Vitoria-Gasteiz kalea, 3, 20018 Donostia.

! Erantzun-orria:

A. FAMATUEN ARMAIRUA

2 a; 4 b; 3 c; 1 d

	Micken armairuan	Victoriaren armairuan	Agatharen armairuan	Ronaldinhoren armairuan
Badago:	Kamiseta beltzak Galtza bakeroak	Gona eta soineko motzak jantzi beltzak eta dirdiratsiak	Kolore biziko arropak	Galtza zabalak, bakeroak, izerditakoak eta kamisetak alkandora eta galtza informalak Artilezko txanoa
Ez dago:	Gorbatarik	Kotoizko praka zabalik eta txandun izerditakorik	Soineko beltz klasikorik	Jertse lodirik
Negurako:	Larruzko kazadora beltza	Artilezko jertse luzea eta zabala	Beroki fuksia koloretako bihotz, hodei eta lorez apaindua	Bufandak

B. KIKEREN ARMAIRUA

Kike Amonarriz:

Nire armairuan telebistan ateratzeko arropa egokia dut. Beti egongo dira galtza bakeroak prest. Alkandoratan aukera handia dut. Normalean marradunak edota kolore bakarrekoak. Sekula ez laukiduna. Gainerako normalean jakak erabiltzen ditut, ilun xamarrek gehienetan. Ez duzue, beraz, ez arropa (oso) informalik, ezta traje eta gorbatarik aurkituko nire armairuan.

D.- AUKERA EGOKIA EGITEKO

Abarkak	Katiuska kolore bakarrekoak
Artilezko jertse, txaketa eta txalekoak ✓	Larruzko berokiak ✓
Belaunerainoko gona bakeroa ✓	Militar itxurako galtzak
Franelazko gona ✓	Pamelak
Galtza altuak ✓	Petoak
Galtza zabal-akanpanatuak	Pitxiak
Galtza-gonak	Pololoak
Gerriko estuak	Poltsa handiak ✓
Gonazpikoak	Popelinazko atorrak ✓
Jaka zabalak	Soineko luzeak
Jantzi barrubigunak ✓	

E. DESBERDINTASUNAK

Emakumeak	2003ko neguan modan zegoena	2007ko neguan zer?
Koloreak	Beltza, marroia, gorria, zuria	Grisa, beltza, urdin degradatuak
Itxura	60-70 hamarkada	A formako mozketak, XXL neurriak. 90 hamarkadako grunge estiloa
Prakak	Estuak: pitilloak eta mallak (elastikoak) Piratak	Bakeroak, trajetakoak, gerri altu eta markatuak, behetik zabalak
Gonak	Miniak, motz-motzak	Belaunerainokoak
Jertseak eta jakak	Artilea, trikota. Lodiak, lepo luze eta handiak	Kapa-txaketak
Materialak	Larrua, txarola, krokodilo tankerakoak	franela, artilea, larrua, distiratsiak

Gizonezkoak	2003ko neguan modan zegoena	2007ko neguan zer?
	Jakak, zapatilak	Hori koloreko jantziak, sport estiloa, galtza zabalak, militar estiloko botak, zapata belarridunak.